

ELIKAKO KODE ETIKOA

Kode honen helburua da ekintza publikoko eredu konprometitu eta arduratsuagoak ezartzea, erakunde publikoen kudeaketan eta norabidean jardunbide egokienak sustatuko dituztenak, eta, gainera, herritarren eta administrazio publikoen arteko konfiantza indartzeko tresna bihurtzea.

Horrenbestez, administrazio langileen (zuzendaritzakoa edo ez) egunerokoan oinarri etikoak sartu nahi dira, hala nola zintzotasuna, gardentasuna, parte-hartzea, erantzukizuna, zerbitzu publikorako borondatea...

Kodearen bitartez, Erika Fundazioaren xedea da bere langile guztiek oinarri etikoetan eta jokabide egokietan oinarrituta gauzatzea beren jarduera. Oinarri horiek honako hauek dira:

INPARTZIALTASUNA, OBJEKTIBOTASUNA ETA NEUTRALITASUNA.

- Objektibotasunez, inpartzialtasunez eta interes komunen alde jardungo da.
- Egoera pertsonal, sozial edo ekonomikoengatiko bazterkeria ekar dezaketen jarduerak saihestuko dira.

OSOTASUNA ETA ZINTZOTASUNA

- Leialtasunez eta fede onez jardungo da administrazioarekin eta haren interesekin.
- Ez da jardungo edo parte hartuko interes pertsonalak egon daitezkeen gaietan.
- Interes-gatazkak sor ditzaketen jarduera pribatuak saihestuko dira.
- Norberaren lanpostuarekin bateraezinak diren betebeharrak ekonomikoak hartzea saihestuko da.

- Ez dira baliabide eta ondasun publikoak erabiliko norberaren edo hurbilekoen onurarako.
- Ez dira ohikoak edo gizalegez egindakoak gainditzen dituzten opariak, faboreak edo egoera abantailatsuak onartuko.
- Ez da eskatuko izapideak arintzeko edo ez da izapiderik ebatziko bidezko kausarik gabe.
- Norberaren lanpostuko erantzukizunak betetzea eragozten duen baldintza ororen berri emango da.
- Sekretupean eutsiko zaio hala eskatzen duen gai orori eta lanpostua dela-eta jasotako informazioa zuhurki erabiliko da.

ERANTZUKIZUNA ETA ERAGINKORTASUNA

- Oinarrizko eskubideak eta ordenamendu juridikoa errespetatuko dira.
- Lanarekin lotutako argibideei eta aginduei men egingo zaie, baldin eta ordena juridikoa hausten ez badute. Kasu horretan, berehala emango zaie egoera horren berri dagozkien ikuskapen-organoei.
- Kasu bakoitzean ezarritako jardunaldia eta ordutegia errespetatuko dira.
- Prestakuntza eta kualifikazioa eguneratuta mantendu beharko dira.
- Laneko segurtasun- eta osasun-arauak beteko dira.
- Herritarrei lagunduko zaie beren eskubideak gauzatzen eta beren betebeharrak ezagutzen eta betetzen.
- Administrazioari jakinaraziko zaizkio lanpostuak hobetzeko eta arrazionalizatzeko beharrezkoak diren alderdi guztiak.
- Administrazioa arina eta eraginkorra izateko laguntza emango da.
- Baliabide eta ondasun publikoak arduraz baliatuko dira, ekonomiaren, kulturaren eta ingurumenaren arloko iraunkortasun-irizpideak aplikatuz.
- Eraginkortasun-, ekonomia- eta eragingarritasun-oinarrien arabera jardungo da.

GARDENTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

- Herritarrei jakin behar duten eta beren bizi-baldintzak hobetuko dituen guztiaren berri emango zaie.
- Gardentasunez jardungo da, herritarrentzako irisgarriak eta harberak izanik.
- Nagusiei helarazi beharreko agiriak eta espedienteak zainduko dira.
- Herritarrei arreta euskaraz eta gaztelaniaz ematea bermatuko da, indarrean dagoen legediaren arabera, eta horien erabilera sustatu ere egingo da.

EREDUGARRITASUNA ETA PERTSONA GUZTIEKIKO ERRESPETUA

- Aktiboki lan egingo da erakundea hobetzeko eta hura eraginkorragoa izateko.
- Lantokia atsegina izatea eta lankideen, mendekoen eta nagusien arteko harremana osasuntsua eta errespetuzkoa izatea lortzen saiatu behar da.
- Erakundean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko da.
- Sexu-bazterkeria dakarren egoera oro edo lan-ingurunekeo jazarpen oro salatuko da.

Arkauten, 2018ko azaroaren 12an.